

ZERBITZUAK EMATEAREN EDO JARDUERAK EGITEAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIO ERREGULATZAILEA. 2018.URTEA

I.- KONTZEPTUA

1. artikulua- Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak araupetzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, udal honek eranskinean zerrendatutako zerbitzuak eman edo jarduketak egitearen prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, Akordio honetan jasotako arauen arabera, haiek hemen sartzen baitira.

2. artikulua- Akordioa udal mugarte osoan aplikatzen da.

II.-ZERGAPETUTAKO EGITEA

3 artikulua.- Udal administrazioak, eskatu zaiolako zein partikularrek egindakoek ekintzek zein egin gabekoek zeharka eragin dutelako, zerbitzua eman edo jarduketak egitea gauzatzea zergapetuta geratzen da.

III.- ORDAINTZERA BEHARTUTAKOAK

4. artikulua.- Akordio honetan araututako prezio publikoak betetako zerbitzu edo jarduketa horien onuradunek, zein prezio publikoa ordaintzea eskatzen den antolatutako ekitaldietara joaten direnek ordainduko dituzte.

IV.- ZENBATEKOA

5. artikulua.- Akordio honetan araututako prezio publikoen ondoriozko tarifak eranskinean jasota daude.

Prezio publikoak aplikagarri den BEZaren mendekoak izango dira, hala badagokio. Informazio gisa, tarifa batzuetan BEZa banakatuko da, onespenez egunean indarrean dagoen oinarriaren arabera. Aplikagarri den BEZaren zerga-tasa aldatzen baldin bada, tarifak automatikoki eguneratuko dira dagokion BEZarekin. Ateratzen diren kuotak bi hamartarrekin borobilduko dira, 5 zentimoko multiploetan.

6. artikulua.- Zenbateko eskagarriak eskatu zein egindako zerbitzu edo jarduketa bakoitzarengatik ordainduko dira, eta ezin izango dira dagokien epigrafeetan zehaztutakoa baino merkeago jarri.

7. artikulua.- Akordio honek hizpide dituen udal zerbitzuak eman edo jarduketak egiteko, aurretiaz Udal Administrazioari horiek egin ditzan eskatuko zaio. Zerbitzu edo jarduketa horiek emantzat joko dira, nolana ere, Akordio honetan araututako prezio publikoak ordain daitezzen baldintzapean eta, luzatzekotan, prezio publikoak ez ordaintzeak zerbitzua ez ematea edo jarduketa ez egitea ekarriko du, automatikoki.

8. artikulua.- Akordio honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen edo jarduketa egiten hasten denean sortuko da, baina Udalak aurretiaz zati bat zein osorik ordaintzea eskatu ahalko du.

Alabaina, kontua jada bete edo luzatutako zerbitzuak eman zein jarduketak egitea bada, ordaindu beharra dagokion tarifan esandako denbora tarte naturaleko lehenengo egunean sortuko da.

9. artikulua- Prezio publikoa honelaxe ordainduko da:

a) Zerbitzuak eman edo jarduketak egin behar direnean, udaleko diru kutxetan dirua sartuz, zerbitzu eman edo jarduketa egin aurretik, eta jarritako zenbatekoan.

b) Aurretiaz ordaintzerik ez dagoen zerbitzuak eman edo jarduketak egin behar direnean, egiten direnean, behartutakoak dagokion faktura aurkezten zaionean ordainduko du.

10. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egozterik ez dagoen arrazoiak tarteko, zerbitzua edo jarduketa betetzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

11. artikulua.- Prezio publiko horien ondoriozko zorrak premiamenduko administrazio prozeduraren bitartez eskatu ahalko dira.

V.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

12. artikulua.- Ez da Akordio honetan espresuki jasotakoez bestelako salbuespen edo hobaririk emango.

VI.- AMAIERAKO XEDAPENA

Udalaren osoko bilkurak 2006ko irailaren 29an egunean egindako bileran Akordioaren oraingo testua onetsi du, eta 2011/01/28an eta 2011/05/05ean, 2018/03/28an aldatu zen, eta ondorioak izango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, eta hala iraungo du aldarazi edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

A) EPIGRAFEA – TURISMOKO UDAL BULEGOKO PREZIO PUBLIKOAK

Hara Akordio honetan araupetutako Turismoko Udal Bulegorako prezio publikoen tarifak:

Postala 0,30 Euro

Posterra 2,50 Euro

Pina 1,00 Euro

Pin bilduma 4,00 Euro

Poster bilduma 10,00 Euro

Bideoa 7,00 Euro

Getxoko esku orria, 0,6tik 3,00 Eurora bitartean

Getxoko oroigarriak, 1,2tik 45,00 Eurora bitartean

Argazki materiala, 4,2tik 10,00 Eurora bitartean

Ehungintzako gauzak 3,00tik 36,00 Eurora bitartean

Turismoko Udal Bulegoak editatu ez dituen turismo argitalpenak (2), 1,00tik 40,00 Eurora bitartean

Bulegoak editatutako materiala denden eta bestelakoen bidez banatzen denean, %25 merkatuko da.

Atal honetan egun salgai dauden ehungintzako gauzak sartuko dira (kamiseta, jertsea, ...), baita hurrengo ekitaldian egin litezkeenak ere.

Atal honetan Getxoko Argazkien Liburua ere sartzen da.

B) EPIGRAFEA .- KULTUR ETXEAREN ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK

Akordio honetan arautzen diren Kultur Etxearen zerbitzuak jasotzeko eta jarduerak egiteko prezio publikoen diru-zenbatekoa epigrafe honetan ezarritakoa izango da.

Hurrengo kasuetan, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzen zaio zenbatekoak ezartzea:

ANTZERKIA-DANTZA

Arte eszenikoak

MUSIKA

Jazz kontzertuak
Folk kontzertuak
Blues kontzertuak
Musika klasikoko kontzertuak
Beste kontzertu batzuk

BESTE TAILER/IKASTARO BATZUK

BESTE BATZUK: ZINEMA

Dagokion erabakia onesteko, Kultur Etxeak bere proposamenak igorriko ditu, ziurtagiri egokiekin, Kontu Hartzailletza Sailera. Sail horrek txosten teknikoa egingo du, gutxienez zerbitzuaren edo jardueraren kostuaren estaldura justifikatzen duena, eta gero Gobernu Batzarrari txostena eta onespren proposamena aurkeztuko dizkio.

Tokiko Gobernu Batzarrak prezio publikoak arestian adierazitako mugaren azpitik jarri ahalko ditu, hala gomendatzen duten arrazoi sozialak, ongintzazkoak, kulturalak edo interes publikokoak badaude. Kasu honetan, Kontu Hartzailletza Sailari igortzen zaion proposamenak, interes orokor hori justifikatzeaz gain, frogatu beharko du aurrekontuan dirua dagoela ateratzen den aldea estaltzeko, baldin balego.

Prezio publikoa onesteko erabakian, haren indarraldia adieraziko da eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta aplikatu beharreko gainerako zergaren pean egoteari edo zerga ordaintzetik salbuetsita egoteari buruzko berariazko aipamena sartuko da.

PREZIO PUBLIKOAK MURRIZTEA FAMILIA UGARIEI

TAILERRAK eta UDAL EUSKALTEGIA ataletako prezioetan murrizketak aplikatuko zaizkie ordaintzeko betebeharra dutenei indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariaren kide badira, familia-errenta estandarizatua 40.000 euro edo gutxiago denean.

Subjektu pasiboek baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketen berri eman beharko dute murrizketa hori jaso ahal izateko. Administrazioak ofizioz egiaztatu ahalko du betekizunak betetzen direla, eta subjektu pasiboak prezioa murrizteko eskubidea duela frogatzeko behar diren agiri guztiak aurkezteko agindu ahal dio.

Ordaindu beharreko zenbatekoa ateratzeko, prezio orokorrari familia ugariaren familia-errenta estandarizatuaren arabera dagokion murrizketa portzentajea aplikatuko zaio, koadro honen eredura:

Familia-errenta estandarizaturua	Murrizketaren portzentajea
10.000 euroraino	% 90
10.001 eurotik 20.000 euroraino	% 50
20.001 eurotik 30.000 euroraino	% 25
30.001 eurotik 40.000 euroraino	% 10

Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira):

Subjektu pasiboa	Koefizientea
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero-indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33	0,3

Murrizketa horren aplikazioa ordaintzeko betebeharra duenak eskatu beharko du eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Prezio publikoa murrizteko eskaera-idazkia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken errenta-aitorpenaren fotokopia. Ez badute errenta-aitorpena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baita erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituenak.

TARIFAK ETA APLIKAZIO ARAUAK

ZINEMA

	BEZ barik	BEZa barne
Zine Kluba,	2,89 Euro	3,5 Euro
Zinema Paradiso	2,89 Euro	3,5 Euro
Haur zinema	2,07 Euro	2,5 Euro

BESTE JARDUERA BATZUK

	BEZ barik	BEZa barne
Komiki Aretoa (Stand-alokairua)	289,26 Euro	350 Euro

SAN LORENTZOKO MERKATUA

Barazki, fruta, lore eta ezti postuak	13,00 Euro
Ogi eta eratorrien postuak	13,00 Euro
Gazta, urdaitegi postuak	17,00 Euro
Txosna	188,00 Euro

IKASTURTEKO TAILERRAK

	BEZ barik	BEZa barne
Ordu 1 eta 35 ordu arteko tailerrak	41,32 Euro	50,00 Euro
36 eta 85 ordu arteko tailerrak	78,51 Euro	95,00 Euro
86 eta 140 ordu arteko tailerrak	128,10 Euro	155,00 Euro
Argazkigintza-tailerra	148,76 Euro	180,00 Euro

GETXO ANTZOKIAREN ALOKAIURUA

a) Hitzaldi, mintegi edo b) atalean jasotako jarduketan muntaketa eta entseguetarako alokairua

Egun erdi	373,00 Euro
Egun osoko erabilpena	599,00 Euro

Abonuak

1. Getxo Antzokiaren alokairuaren ordainketa instalazioak erabiltzen dituzten eskarigileen gainera etorriko da.
2. Partikularrek antolatutako jarduera edo ikuskizunetarako sarrerak kobratzen badira, automatikoki kuotak ordaindu beharko dira, tarifa berezietan eta salbuespenean esandakoan ezik.
3. Getxo Antzokiaren data erreserba ez da izatezkoa izango baldin eta eskatutako alokairuaren ordainketaren frogagiririk ez badarama.
4. Alokairuak erabili aurretik ordainduko dira, 48 ordu lehenago beti.
5. Egindako erreserbak ezeztatzea idatziz aurkeztuko diren arrazoi ondo frogatuak tarteko soilik onartuko da, eta betiere eskatutako jardueraren data baino gutxienez 8 egun lehenago izatekotan.

b) Zinema edo bideo emanaldietarako alokairua

Egun erdi	436,00 Euro
Egun osoko erabilpena	751,00 Euro

Urtean egun bat baino gehiago erabiltzen bada, kuota desberdinak zehaztu ahalko dira, okupazioa zelakoa den arabera.

c) Musika, antzerki, kontzertu, errezitaldi edo halako emanaldietarako alokatzea, aldagela eta kamerinoen erabilpena barne.

Egun erdi	436,00 Euro
Egun osoko erabilpena	751,00 Euro

KULTUR ETXEKO LOKALEN ERABILERA

Hara, Kultur Etxearen eta Romo Kultur Etxeko lokalen erabilera zenbatekoa izango den:

Ekitaldi aretoa

	BEZ barik	BEZa barne
Egun osoa	115,70 Euro	140,00 Euro
Egun erdia	61,16 Euro	74,00 Euro

Gelak

	BEZ barik	BEZa barne
Egun osoa	49,59 Euro	60,00 Euro
Egun erdia	34,71 Euro	42,00 Euro

ROMO KULTUR ETXEKO ENTSEGU-GELAK ERABILTZEA

Musika-taldeak

	BEZ barik	BEZa barne
Ordu 1.	8,26 Euro	10,00 Euro
2 ordu.	12,40 Euro	15,00 Euro
3 ordu.	16,53 Euro	20,00 Euro
4 ordu	20,66 Euro	25,00 Euro

UDAL EUSKALTEGIA

1.- Hara UDAL EUSKALTEGIAREN zerbitzuaren prezio publikoaren zenbatekoaren tarifa:

	BEZ barik	BEZa barne
Prezioa orduko:	0,91 Euro	1,10 Euro
Autoikaskuntzako ikastaroa	300,00 Euro	363,00 Euro

2.- Prezio publikoa ordaintzera behartutako subjektu pasiboa da udal euskaltegiaren zerbitzua erabiltzen duen pertsona edo erabiltzen dutenen ordezkari legala.

3.- Prezio publikoa ordaintzeko beharra matrikula egiten den unean sortzen da.

FOTOKOPIA ETA BIBLIOTEKAKO NORTASUN AGIRIEN ZERBITZUA

Fotokopiak egiteagatik tarifa hauek kobratuko dira:

A4 tamaina, alde batetik	0,05 Euro
A4 tamaina, bi aldeetatik	0,10 Euro
A-3 tamaina, alde batetik	0,10 Euro

A-3 tamaina, bi aldeetatik	0,20 Euro
Bibliotekako kide agiria	1,00 Euro
Liburutegiko bazkide txartela berriztatzea (salaketa ekarri ezik)	1,00 Euro

ORDENAGAILUTIK INPRIMATZEA

Ordenagailutik alde bateko inprimaketa bakoitza, zuri- beltzean	0,10 Euro
Ordenagailutik alde bikoitzeko inprimaketa bakoitza, zuri- beltzean	0,15 Euro

ARGAZKIEN KOPIAK

Tokiko bildumako argazkien paperezko kopia bakoitza	1,60 Euro
Tokiko bildumako argazkien CD/DVD formatuko lehenengo kopia	2,00 Euro
Tokiko bildumako argazkiak CD/DVD/Pendrive batean gordetzea, kopia bakoitzeko	0,60 Euro
Posta elektronikoz bidalitako argazki bakoitza	0,60 Euro

C) EPIGRAFEA, PREZIO PUBLIKOA EREAGAKO HONDARTZAKO UDAL IGOGAILUA ERABILTZEAGATIK.

Akordio honetan araututako Ereagako Hondartzako Udal Igogailua erabiltzeko prezio publikoen zenbatekoa tarifa hauen arabera finkatuko da:

Joanaldia: 0,20 Euro/bidaia. (BEZ barne)

10 bidaiako bonoa: 1,80 Euro. (BEZ barne)

Creditransekin: 0,18 Euro/bidaia. (BEZ barne)

D) EPIGRAFEA.- “ANDRES ISASI” MUSIKA ESKOLAKO SUSTAPEN GAUZEN SALMENTARAKO PREZIO PUBLIKOAK

Arropak:

Mauka luzeko poloa, Musika Eskolakoa: 16,00 €

Mauka motzeko poloa, Musika Eskolakoa: 12,00 €

Musika Eskolako kamiseta: 13,00 €

Musika Eskolako kirol jertsea: 21,00 €

CDak:

Musika Eskolako CDak: 3,00 €

E) EPIGRAFEA.- OPORRETAN AISIALDIKO JARDUERAK EGITEAGATIK PREZIO PUBLIKOAK

Getxon bizi diren 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat oporretan aisialdiko jarduerak egiteagatik izandako prezio publikoaren zenbatekoa honako tarifa hauetan finkatuko da:

-Prezio publiko orokorra:

2,00 €, BEZ barne, erabiltzaile bakoitzeko eta jardueraren ordu bakoitzeko.

-Gizarte Bermerako Errentan ezarritakoaren %150 gainditzen ez duten urteko diru-sarrerak dauzkaten familientzako prezio publikoa: 0,90 euro, BEZ barne, erabiltzaile eta jarduera ordu bakoitzeko.

Maila orokorreko familia ugariak tarifa aplikatuta geratzen den kuotaren %25eko hoberia jasoko dute.

Maila bereziko familia ugariak tarifa aplikatuta geratzen den kuotaren %40ko hoberia jasoko dute”.